

Maria Jesus Osa Alberdi

*Soraluze
Gipuzkoa (1940)*

Aurkibidea

Biografia



Soraluzeko Eitza baserrian jaiotakoa. Ama Bergarako Ontzola baserrikoa zuen, baina aitaren aldeko gurasoak bata Ibarrolakoa eta bestea Osteita baserrikoak ziren. Gazterik hasi zen lanean, Zestoa eta Altzolako bainuetxeetan. Ezkondu eta Eibarrera joan zen bizitzera. Bere ahizpa Mirenekin batera egin zitzaion grabazioa.

Zintak

SOR-045

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-05-08
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

SOR-046

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-05-08
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** MiniDV

SOR-117

- **Proiektua:** Eibarko ermitak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2020-07-16
- **Iraupena:** 44 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Gerra-garaian gurasoek baserritik alde egin zuten

- **Erref:** SOR-045/001
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Miren 1934an jaioetakoa da eta Maria Jesus 1940an. Irure auzoko Eitza baserrian jaio ziren. Gurasoei entzundako gerra garaiko kontuak kontatzen dituzte. Gerra garaian, baserritik atera, ardiak eta ganadua beste baserri batzuetara eraman, eta eurak Antonio Lasartenera eraman zituzten.

2. Irure auzoan jaioetakoak

- **Erref:** SOR-045/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Irure auzoko Eitza baserrian jaio ziren. Irure auzoa noraino heltzen den.

3. Eitza baserria erosteko dirua

- **Erref:** SOR-045/003
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Euren aurrekoak Bergarako Ibarrola baserritik etorritakoak omen ziren. Aitita Ibarrola baserrikoa zen eta amama Osteitakoa. Ezkondu zirenean Osteitara joan ziren hasieran eta gero Eitza baserrira errentero. Gerora baserria erostea pentsatu zuten, baina dirurik ez eta prestamoa behar izan zuten. Gizon batzuk ibiltzen ziren gisa horretako prestamoak egiten eta euren familiak ere horrela lortu zuen baserria erosteko dirua.

4. "Baile de sambito" gaixotasuna; sintomak eta erremedioak

- **Erref:** SOR-045/007
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Mojak ohartu ziren gaixorik zegoela, "baile de sambito" zuela, eta gero medikutan hasi ziren. Ze sintoma izaten zituen. Hainbat medikurekin ibili zen eta baita Azpeitiko sasimediku batekin ere. Donostiako Bidarte medikuarengana joateko ezagun bat eramaten zuten "itzultzaile" gisa. Mediku bakoitzak ematen zizkion erremedioak. Inorekin ez eztabaidatzea komeni zitzaiola eta gurasoek Ibarrola baserrira bidali zuten.</p>

5. Dotrina ikastea eskola baino garrantzitsuagoa

- **Erref:** SOR-045/008
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Eskola ere utzi egin behar izan zuen Mirenek bere gaixotasunagatik. Eskola baino garrantzitsuagoa zela-eta, dotrina ikastera joaten zen. Geroago Maria Teresa Amañarekin ibili zen klase partikularretan.</p>

6. Baseri inguruan bi bide: elizbidea eta herribidea

- **Erref:** SOR-045/010
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:20:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baserritik bi bide izaten zituzten: herribidea eta elizbidea. Inguruko baseritarrei jatekoa eta edatekoa ematen zitzaien herribidea egitearren.

7. "Trukumon" Azpeitiko sasimedikua

- **Erref:** SOR-045/012
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:24:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

"Trukumon" Azpeitiko sasimedikua baserririk baserri ibiltzen zen. "Estraperlo" gisara ekartzen zuten, beste medikuen ezjakinean. Kontsulta ere bazuen eta Miren haraxe joaten zen. Trenik ez zegoen Azpetira eta autobusetan moldatu behar izaten ziren. Belar-ura ematen zuen hartzeko normalean. Jendeak fede handia zion.

8. "Trukumon" sasimedikuaren erremedioak

- **Erref:** SOR-045/014
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:26:26. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

"Trukumon" sasimedikuak enplastoak ere agintzen zituen. Erlakistenak kentzeko xaboia, zahia eta ardoarekin egindako enplastoak. Gauza askotarako artabizarren ura agintzen zuen. Bestelako erremedioak. Euren gurasoek fede handia zioten.</p>

9. Parterak etxerik etxe erditzeetan laguntzen

- **Erref:** SOR-045/015
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:30:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Umeak baserrian edukitzen ziren. Inguruetan Soraluzeko Lasa praktikantea ibiltzen zen erditzeetan laguntzen etxez etxe. Euren aurrekoak nola konpontzen ziren ez dakite, baina euren ezagun bat ibiltzen omen zen partera moduan laguntzen.

10. Bildots-garaian aititak mendian lo egiten zuen

- **Erref:** SOR-045/017
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:33:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Ardiak ere bazituzten baserrian. Inguruetan pinuak landatu zirenean goardak ardiak kentzera behartu zituen, ardiek pinu-puntak jaten zituztela eta. Bildots-garaian euren aititak mendian zuen txabola batean lo egiten zuen lastoaren gainean.</p>

11. "Erreberoa" eta "horitza" osasunerako onak

- **Erref:** SOR-045/018
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:33:05. **Bukatu:** 00:35:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>"Erreberoa", esne jetzi berria edaten zuten, osasunerako ona zela eta. Kaletik jendea etortzen zen behien "erreberoa" edatera. "Horitza" ere ematen zieten gurasoek edateko odola garbitzeko ona zela eta. Lehenago behiek esne gutxiago ematen zuten.</p>

12. Torloju fabrikan lanean ezkondu arte

- **Erref:** SOR-045/020
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:39:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Tailerrean ere ibili zen lanean Miren, Sacia Soraluzeko torloju fabrika. Hango nagusiak euren bezeroak ziren eta hala sartu zen fabrika 15 urte ingururekin. Ezkondu arte egon zen bertan lanean. Ze lan egiten zuen.

13. Torloju lantegian egindako lehen grebaren inguruko bizipenak

- **Erref:** SOR-045/022
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:42:30. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneko lantegiak

Laburpena:

Emakume askok lan egiten zuen Sacia torloju lantegian. Fabrika egin zuten lehenengo grebaren inguruko bizipenak. Nortzuk ziren enkargatuak, nortzuk geratu ziren eta nortzuk alde egin zuten. Tailerraren inguruko kontuak. Osintxutik jende asko etortzen zen Soraluzera lanera eta denak bizikletetan etortzen ziren.

14. Asteburutan Osintxuko "Eusebio" tabernan laguntzen

- **Erref:** SOR-045/024
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:48:05. **Bukatu:** 00:51:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihaingintza

Laburpena:

Baserriko emakumeak hara edo hona bidaltzen zituzten josten ikastera edo kozinan ikastera eta hala joan zen Miren Osintxuko "Eusebio" osabaren tabernara. Osintxun algodonerak garrantzitsua zegoen orduan eta uholdeak egon ziren sasoiak katalan asko etorri omen zen apopilo. Sukaldean ikaste aldera, asteburutan joaten zen osaba-izebei tabernan laguntzera.

15. Osintxura loinatara; Eibarko alfistek zuten fama

- **Erref:** SOR-045/025
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:51:15. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Eibar ingurutik kuadrillak joaten zen Osintxura lloatara. Loinak tabernariei eman eta haiek momentuan prestatzen zizkieten. Eibarko alfistak etortzen ziren eta oso irekiak omen ziren. Gainera, Mirenek propina onak uzten zituztela du gogoan. Eibarko alfistek inguruetan zuten fama. Ezkontzak ere ematen zituzten jatetxean; mugimendu handia izaten zuten. Tabernan ezagutu zuen Mirenek senarra.

16. Bi hilabeterako Zestoara lanera

- **Erref:** SOR-045/027
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:55:30. **Bukatu:** 00:57:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Maria Jesus 15 urte zituela Zestoara joan zen bi hilabeterako lanera. Taxisean joan zen. Logelak egiten lan egiten zuen. Orduko bizipenak.

17. Jendea balneariora osasuna hobetzera

- **Erref:** SOR-045/029
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:58:00. **Bukatu:** 00:59:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikatuak eta sasimedikuak

Laburpena:

"Trukumon" sasimedikuak izara bustiekin bainuak hartzeko gomendatu zion Mireni. Inguruko balnearioetara ere jende asko etortzen zen osasuna hobetzera. Arrasaten gaur egun sanatorioa dagoen lekuan ere balnearioa zegoen lehenago.

18. Balnearioko hoteleko lanak eta baldintzak

- **Erref:** SOR-045/031
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:00:55. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Balneariora jende asko etortzen zen beste probintzia batzuetatik. 100 pertsona edukitzen zituzten hotelean. Nagusiek jenio bizia zutela eta Maria Jesusi laguntzen zion neskak alde egin zuen eta berak bakarrik egin behar izaten zituen lanak. Langile ugari zeuden eta bertan egiten zuten bizimodua. Baina goseak edukitzen zituzten.

19. Gaztetatik San Romaneko erromeriara

- **Erref:** SOR-117/002
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:02:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Umetatik San Salvador ermitarekin lotura izan dute. Hamabost urterekin hasi ziren erromeriara joaten. Salvador eguna astean zehar tokatzen bazen, hurrengo igandean ospatzen zen. Eibarko Karmelitek ematen zuten meza. Bailara ezberdinetatik etortzen zen jendea. Ardoa eta janaria saltzen zen, bertsolariak eta soinu-joleak zeuden, dantza lehiaketak, bola-jokoak, sari-banaketak...</p>

20. San Salvadorreko txabola eta elkarte gastronomikoa

- **Erref:** SOR-117/003
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:02:56. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Ezkonduta eta gero, gizonak ermita inguruko lursail bat erosi eta bertan txabola eraiki zuten. Ordutik sarri joan dira seme-alabekin. Ermitaren inguruan dauden baserriak aipatzen ditu. Ermitaren atzealdean, Eibarko elkarte gastronomiko zaharrenetarikoa bat dago.

21. San Salvadorreko erromerian herri ezberdinetako jendea

- **Erref:** SOR-117/004
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Soraluzetik joaten ziren San Salvadorrera oinez. Elgetatik ere bai, batez ere

Azurtzako auzotik. Dantza egin eta gaueko hamarretan etxera bueltatzen ziren. Oso giro ona egoten zan. Eibarko jende asko ere igotzen zen ermitara.

22. San Salvador ermitaren apainketa

- **Erref:** SOR-117/006
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Ermitaren barrualdea nolakoa den eta santuaren egunean aldarea nola apaintzen zuten kontatzen du. Eibarko Karmengo elizakoak ziren meza ematearen ardura zutenak. Ermitaren jabeak, Areta baserrikoak dira.</p>

23. San Salvador ermitako ospakizunak I

- **Erref:** SOR-117/008
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:08:07. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

San Salvador santuaren koadro bat dago aldarean. Lehen, ur-bedeinkatua beti egoten zen. Abuztuaren 6an da jai eguna eta erromeria hurrengo igandean egiten zen. Gaur egun, ez da egiten. Erromeria egunean, jende pila bat batzen zen. Elkarte gastronomikoak taberna jartzen zuen baina urte batean, Maria Jesusek eta familiak ipini zuten. Zinegotziak ere igotzen ziren eta herri-bazkaria egoten zen.

24. San Salvador ermitako kanpaiak; hil-kanpaiak

- **Erref:** SOR-117/009
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:10:58. **Bukatu:** 00:12:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Kanpaia jotzen zen ermitan, mezetara sartu aurretik. Auzokoren bat hiltzen bazen, hil-kanpaiak jotzen ziren baina bertan ez zen elizkizunik egiten.</p>

25. San Salvador ermitako ospakizunak II

- **Erref:** SOR-117/011

- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:12:57. **Bukatu:** 00:16:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>San Salvador ermita berriztatuta dago. Taberna Areta baserrikoek ipintzen zuten eta ardoa zahagietan ekartzen zuten idiekin. San Salvador egunean eta hurrengo igandean, meza eta erromeria eta programazio zabala egoten zen: suziriak, bola-jokoa, soinu-jotzailea, dantzak, bazkariak… Dantza-motak aipatzen ditu: trikitixa, "agarraua", korroan…</p>

26. San Salvador eguneko taberna

- **Erref:** SOR-117/013
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:18:04. **Bukatu:** 00:20:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Salvador egunean goxoki-saltzailea egoten zen. Tabernan, ardoa, kas-a, limoi-ura, kafea eta ura saltzen ziren. Ura eta limoi-uraren arteko ezberdintasunak kontatzen ditu.

27. San Salvador ermitako elizkizunak

- **Erref:** SOR-117/015
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:23:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>San Salvador jaietan tabernako mostradorera andra eta gizonak inguratzen ziren. Zelaian egoten ziren jarrita, zuhaitzen itzaletan. Behin ezkontza bat ospatu zen. Kanpaiak jaietan bakarrik jotzen ziren.</p>

28. San Salvador egunean, meza zelaian entzuten

- **Erref:** SOR-117/016
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:23:08. **Bukatu:** 00:24:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Jai egunetako elizkizunetan andreak eta gizonak nahastuta egoten ziren. Ermita txikia denez, jendea zelaian ere egoten zen meza entzuten. Ez ziren dotore jazten, perkalez egindako soineko eta alpargatekin. Perkala zer den azaltzen du.</p>

29. San Salvador ermita, Areta baserrikoa

- **Erref:** SOR-117/019
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:25:47. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Urtean zehar elizkizun partikular batzuk egoten ziren, hildako auzokoen omenez. Areta baserrikoek prestatzen zuten ermita. Ezagutu dituen abadeen izenak aipatzen ditu. Barrualdea beti kandlekin apainduta egoten zen. Mezan "komulgatzeko", abadea aterpera ateratzen zen.

30. San Salvadorrera igandero

- **Erref:** SOR-117/020
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:30:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

Ia igandero San Salvadorreko txabolara igotzen ziren, semeekin, anai-arrebekin, lehengusuekin, lagunekin... Inguruko baserrikoak ere inguratzen ziren. Bolo-jokoan jolasten zuten denek batera.

31. San Salvadorren errogatibarik ez

- **Erref:** SOR-117/021
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:30:40. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Maria Jesusek ez du San Salvadorren errogatibarik ezagutu. San Pedro Akondia ermitan, bai ordea. Kanpaia jotzen zen, ekaitza zetorrela abisatzeko.

32. San Salvadorreko ur-bedeinkatua

- **Erref:** SOR-117/023
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:34:23. **Bukatu:** 00:36:06

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

San Salbadorreko ermitara ur-bedeinkatua urtean bi aldiz eramaten zuten Eibarko Karmeldarrek. Etxeetara ere eramaten zuten, trumoiak ekiditeko eta osasun arazoentzat. 2017az geroztik ez da mezarik egon.

33. San Salbadorren ermitan maiatzeko-lorarik ez

- **Erref:** SOR-117/025
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:36:14. **Bukatu:** 00:36:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:

Ez zen maiatzeko-lorarik eskaintzen San Salbador ermitan. Oso elizkizun puntualak eta urteroko erromeria bakarrik.

34. San Salbador ermitako ezkia

- **Erref:** SOR-117/027
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:37:20. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Flora
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak

Laburpena:

Ermita parean ezkia dago eta horrekin ezki-ura egiten zuten. Loreak nola lehortu eta gorde azaltzen du. Perretxiko asko ere batu izan dituzte zonaldean.

35. San Salbadorreko erromerian neska-laguntzea

- **Erref:** SOR-117/029
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:42:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

San Salbadorreko erromerian bikoteak sortzen ziren eta mutilek "neska-laguntzera" egiten zuten. Baserrian bizi ziren gazteek erromerietan ezagutzen zuten jende berria.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com